

UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOAREN ORDUTEGIA 2020 URTEA

Ohiko deialdia:
 Ezohiko deialdia:

ekainaren 10, 11 eta 12an
 uztailaren 8, 9 eta 10an

	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	
08:45 – 09:00	Aurkezpena			
09:00 – 10:30	Euskara eta Literatura II	Gaztelania eta Literatura II	09:00 – 10:30	Atzerriko Hizkuntza II (Ingelesa)
10:30 – 11:15	Atsedena		10:30 – 11:15	Atsedena
11:15 – 12:45	Espainiako Historia	Matematika II Geografia Artearen Oinarriak II	11:15 – 12:45	Fisika Filosofiaren Historia Atzerriko Hizkuntza II (Alemana, Frantsesa)
12:45 – 15:00	Atsedena		12:45 – 13:30	Atsedena
15:00 – 16:30	Kimika Latina II Diseinua	Biologia Artearen Historia Grekoa II	13:30 – 15:00	Sarbideko Zuzendaritzak baimendutako egoera bereziak
16:30 – 17:15	Atsedena			
17:15 – 18:45	Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II Marrazketa Teknikoa II Arte eszenikoak	Geologia Enpresaren Ekonomia Ikus-entzunezko Kultura II		

AURKEZPENA

Euskara eta Literatura II azterketa egiten duten ikasle guztiak joango dira aurkezpenera. NAN edo beste identifikazio agiri baliagarri bat eraman beharko dute, eta **matrikularen gordekina**. Matrikulatuta ez daudenei ez zaie azterketa gelan sartzen utziko. Aurkezpenean ebaluazioa egiteko azalpenak emango dira, eta kodeen orria emango zaie ikasleei. Begiratu beharko dute ea matrikulako datuak ondo dauden (izena, NAN zk., ikastetxea, zein gairen azterketa egingo duten...). Akatsik egonez gero, lehen atsedenaldirian esan beharko diote epaimahaiari. Ez da aldaketarik onartuko matrikulako eta kodeen orriko informazioa bera denean.

Gainontzeko ikasleak epaimahaiaren aurrera joan beharko dira kodeen orria hartzeko lehen proba baino 15 minutu lehenago. NAN edo beste identifikazio agiri baliagarri bat eraman beharko dute, eta **matrikularen gordekina**. Matrikulatuta ez daudenei ez zaie azterketa gelan sartzen utziko. Begiratu beharko dute ea matrikulako datuak ondo dauden (izena, NAN zk., ikastetxea, zein gairen azterketa egingo duten...). Akatsik egonez gero, lehen atsedenaldirian esan beharko diote epaimahaiari. Ez da aldaketarik onartuko matrikulako eta kodeen orriko informazioa bera denean.

BI GAI EDO GEHIAGOREN AZTERKETA ORDU BEREAN DUTEN IKASLEAK

Inork bi azterketa ordu berean izanez gero, ikasleak horren berri eman beharko dio epaimahaiari. Probak bata bestearen ostean egingo dituzte, ikasgelatik irten gabe, epaimahai berarekin eta dagokien egunean. Azterketa biak bigarren orduan (11:15 edo 17:15) badira, lehenengo orduko azterketak (09:00 edo 15:00) hasi baino 15 minutu lehenago bertaratuko dira.

MARRAZKETA TEKNIKO II

Marrazketa Teknikoa II-ko azterketa egiteko, ikasleek behar duten materiala ekarri beharko dute: arkatza, eskuaira, kartaboia eta konpasa.

MUGIKORRAK

Mugikorrak eta gailu elektroniko guztiak **itzali egin behar dira** azterketa gelan sartu baino lehen.